

# OIHENARTEN NEURTITZETAKO ADIZTEGIA

Patxi ALTUNA

## 1. Sarrera

Oihenarten neurtitzetan barrena bidaldirik luzeenak egin zituen eta besteri egiten laguntzeko estratak gehiena zelaitu eta lautu zituen Lafon izan zen, dudarik gabe. Bere lehenbiziko *Le système du Verbe basque au xvie siècle* deritzan liburua —nahiz Oihenart eta bere obra hortik landan gelditu— eta berariaz geroko lan *Traduction française des poésies d'Oihenart* izenekoa eta ondoko *Notes pour une édition critique et une traduction française des poésies d'Oihenart* delakoa, azken biok ASJU-n 1955ean argitaratuak, ez dituzte geroko ikerlarien lanek hain gainditu, non ez dituen batek oraindik ere kontsultatu behar, edozein pasarte ilun edo dudamudazkotan behaztopatzen denean. Ongi merezia du Lafonek Oihenarten mendeurren honetan bere merezimendu handien ezagutzea eta bestek ere egingo dion arren, harenari neure xume eta xotil hau eratzeki nahi diot.

Oihenartez aritzean aipamen berezia bigarren lekuan Txillardegiri zor zaio. Hau 1971an, halako filologiako lanak gure artean oso jende gutxik egiten zituen garaian, bere liburua, *Atsotitzak eta Neurtitzak. Oihenarte, 1592-1675*, argitara ematera ausartu zen. Lan heltarinxea beharbada, baina txalogarria zernahi gisaz, garai hartan eta ofiziozko ez zen batek egina izateko aski ederra baita, fonetikazko eta grafiazko zenbait arazotan izan ezik.

Grafia aipatu dugunez gero, halere, nahitaez esan behar harrigarria dela bai *Atsotitzei* baieta *Neurtitzei* Oihenartek hasieran ezarri zien hitzaurretxo bana Txillardegiren edizioan ez agertzea, nahiz dakidan ez ziotela asko lagunduko grafia arazoak konpontzen, zeren bigarreanean ez baitzuen Oihenartek bere grafia sistemaz tutik ere esan, eta lehenean, berriz, arazorik handienak sortzen dituzten *s* eta *z* grafemei buruz zerbait bai, baina horien balio fonetikoak ezagutzen eta gero gaurko grafiara aldatzen lagunduko zigunik deus ez.

Gehiago esango nuke, badirudi bi hitzaurre horietatik lehenean Oihenartek bi grafema horiei buruz dioena ez duela Neurtitzetako grafian osoro betetzen,

adibidez *ts* dena z idatziko duela, «comme en ce mot Azo, vieux ou vieille, lequel il faut prononcer tout ainsi que s'il estoit escrit *Atso*». Hirugarren neurtitzean, esate baterako, *Itsu hutsa* irakurtzen dugu. Dena den, urteotan Oihenarten *Neurtitzak* eskolan aztertu ditugunok Txilardegiren liburuaz ere baliatu behar izan dugu noraezean.

Damurik ez dago eginik, nik dakidala, Oihenartek bere *Neurtitzetan* darabilen grafia sistemaren ikerketarik, baina badira eta baziren bestelako bizpahiru zantzu ikasteko zein zen grafema horien balio zuzena, edo gutxienez pentsatzen galarazteko *s* nahiz *z* bere baitan duten hainbeste hitz harengan «oker»(?) agertzen direnean, inprimategiko hutsegiteak zirenik: «Oihenarte-ren fonetika errespetatzen saiatu naiz, 1657-ko edizioan huts asko izanik beti erraza ez bait da!», irakurtzen dugu haren liburuaren hitzaurrean, eta lehen Neurtitzean agertzen diren *adiskidezeco* eta *pensazes* direla eta, «Hutsa da, ene ustez» diosku batean eta «Hutsa, nik uste» bestean.

1657ko edizioan huts asko? Eta Lafon ohartu ez? Eta hutsak zuzendu ez, edo salatu ez, non edo non? Schuchardt-ek Etxepareren edizioaz halako zerbait idatzi zuelako, irmoki atera zitzaion kontra. Gainera hala izanez gero, huts guztiak ia beti —hunetatik laurogeitamar baino gehiagotan bederen— *s* eta *z* grafemetan gertatu, eta besteetan hain gutxitan? Are gehiago, horrelako grafia «oker» direlakoak ez ditu Oihenartek bere neurtitzetan bakarrik erabiltzen, besteren bertsoak beretzen dituenean ere modu berean aldatzen du bertso haietako grafia eta bere gisara moldatzen. Adibidez Etxepareren distiko

Vztaçu hurrancera amore mayte  
Oray particeco damu guinate (X,1)

hartako hitzak, bere baitan xixtukaria dutenak, honela aldatzen ditu bere *Notitia*-ren bigarren edizioan: *Ustasu, hurrenzera, partizeco*. Eta gauza bera egiten du *L'Art Poétique Basque*-n, Etxepare beraren lehen kantuko lehen lau bertsoak aldatzerakoan, non haren *-z* duten hiru hitzak honela ematen baititu: *memorias, vorondates, endelguias*. Beraz ezin uka bazirela zenbait arrazoi gutxienez susmoa pizteko, «oker» zirelako *s,z* haiek ez ote ziren Oihenarten grafia sistema bereziaren zantzuak eta ez inongo edo inoren hutsegiteak. Hutsegiteetan hor bezalako —*ez* guztizko, egia esan— betibat-tasun eta erregulartasunik ez da gertatu ohi.

Bada azkenik, eta orduan ere bazen, beste iturri bat Oihenarten Neurtitzen grafiari igertzeko: Mitxelenaren artikulua *Arnaut Oihenart* deritzana. Ez zen jatorriz artikulua gisa sortu; hitzaldi bat egin zuen Gipuzkoako Diputazioan eta gero BRSVAP-en argitaratu 1953an, 9. zb., 445-463 or. (Diodan hemen behin, gero gehiagotan esaten ibili gabe, aldizkari horretako testuari nagokiokoeela txosten honetan Mitxelenaren hitzaldi hau aipatuko dudan oro). Beraz beste bien ondotik hirugarren lekuan aipatzen dudan arren, denborari gagozkiola lehen lekua eman beharko niokeen Mitxelenarenari neure lan honetan, zeren hor goian aipaturiko lanetatik Lafonen *Système* bakarrik —Oihenartekin zerr-

kusirik txikiena duena, hain zuzen— baita lehenagokoa, eta Mitxelena ezin baliatu izan baitzen bere hitzaldirako, ondorengoak bezala, Lafonen lanez.

Ez da ordea berez —eta jendaurrean eginiko hitzaldia izan zela jakinik, ezin izan zitekeen— filologiako lana beste biena bezala, eta horregatik utzi dut azkenerako. Badu haatik beste biek ez duten zerbait: *s*, *z* grafema horietaz hitz erditxo bat egiten digu, guk nahi baino gutxiago damurik. Batetik honako hau dio 12. oin-oharrean: «*Naducasu (na(d)ukazu*, alegia)...» eta ohar berean: «...*kaisu*, hau da *kaizu*...», huts konturik ezertarako aipatu gabe. Aurreraxeago beste hau 14. oin-oharrean: «Grafia gaurko gisan aldatu dut bai Oihenarten hitzak, bai beste zaharren batenak aipatzean. Oihenartenetan ez da beti erraz, ez baitzizkioten bere lanak nahi bezala argitara. Zenbait interpretazio sartu behar izan dut, baina ez gehiegi, oker ez banago».

Jakin gabe gelditzen gara, halaz eta guztiz ere, liburuko hutsegiteak asko ala gutxi diren eta, batez ere, horietatik zenbat diren gure *s*, *z* grafemei behatzen zaizkienak eta zenbat, Oihenarten orduko grafia desberdina izateagatik, eta ez bestegatik, Mitxelenak «gaurko gisan aldatu», ez zuzendu, behar izan zituenak. Nahi bezala argitara ez zizkiotela esateak argitasun gutxi ematen digu, izan ere. Zer bai eta zer ez?

Badugu horratik beste froga bat, bakoitzak eman nahiko dion pisukoa, Oihenartengandik beragandik jalkia, halako errakuntzak gutxi direla sinestera lerrarazten gaituena, ene ustez. Hona hemen. Jakina da hark bere liburuari azkenean hutsegiteen zerrendatxo bat berretu ziola. Orain bada, bederatzi makur bildu zituen eta horietatik bat ere ez dagokie gure grafema dontsuei. Okerrak ez ziren seinale!

Eta Mitxelenarengana berriz itzulirik, diodan berez filologiako lana ez zena halakoa bilakatu zela, hitzaldian barrena irakurri baizik egin ez zituen Oihenarten ehun bertso baino gehiago gero argitaratzerakoan, haien «grafía gaurko gisan aldatu» nahirik, «zenbait interpretazio, ez gehiegi, sartu behar izan» zuelako. Ez da burua gehiegi nekatu behar ikasteko zenbat eta zein interpretazio sartu behar izan zituen Oihenarten hitzen grafía gaurkotzeko; aski da biena elkarrekin berdintzea eta azterketa horrek erakusten digu garbiro zein ziren haren ustez sistema horren ildo nagusiak eta zein hark hartarako sarturiko interpretazioak.

Interpretazioetako bat inongo dudarik gabe hau da: Oihenarten *s* bitarikoak dela eta gure *s*-ren ordaina bezala gure *z*-rena ere izan daitekeela, noiz eta non, eta bi fonemetarako grafema beraz baliatzen delarik poeta, gure esku gelditzen dela igertzea noiz den bata eta noiz bestea. Hala XIV. neurtitzeko *escuta*, *sudurra*, *sendi*, *subharturic* bere hartan utziko ditu Mitxelenak, baina hor bereko *bates*, *lastanac*, *sapatu**ric*, *nesan* aldatu eta *z* batez idatzirik emango, hauek ere Oihenartek *s* batez idatzi arren gure *z*-*z* ahoskatzen zituelakoan.

Bigarren interpretazioa beste honek dirudi. Hor ditugu batetik *baninz*, *banenza*, *enzunak*, *honzalen*, *iakinzu*, (Etxepareren *zenzuz*), *dawnzanac*, *beteginzarretan*, *-n*-ren ondoan guztiek Oihenartengan *s* dutelarik, Mitxelenak *z* batez aldaturik. Aldiz bestetik, gorago aipaturiko Etxepareren distikoko *hurrançera* hura, han esan bezala, Oihenartek *hurrançera* idatzirik eta Mitxelenak 13. oinoharrean hori bera *hurrançera* aldaturik eman diguna. Orain bada, horrek bi gauza esan nahi du: bat, Mitxelenak Oihenarten *-n*-ren ondoko xixtukarien artean bi grafia, eta funtsean bi balio fonetiko, desberdin aitortzen dituela: *hurrançera* bezala aditz-izen direnena, afrikaria, eta aurreko multzo hartako *baninz* eta abar bezala, ez direnena, frikaria. Hori bat. Bi, horrenbestez Oihenart arras hastantzen dela Leizarragaren usariotik, honentzat *-n-* guztien ondoko xixtukaria beti frikaria baita. Hori dela eta, Mitxelenaren aldaketa batek bakarrik harritzen gaitu: *mintzätzen* traskribatu du, ez *minzätzen*, Oihenartek *minsazen* idatzi zuena (ikus 3. neurtitza, 3. ahapaldia). Ez ote Mitxelenari berari inprimategian egin zioten hutsa?

Hona azkenik beste interpretazioa, hiru bakarrik aipatzeko: Mitxelenak Oihenarten *z* guziak gaurko *tz*-ren pareko jo ditu, bai eta, ikusi dugun bezala, *n*-ren ondoko aditz-izenenak ere: *hurrançera* (Etxepare), *hurrançera* (Oihenart), *hurrançera* (Mitxelena), nahiz horretan, esan bezala, Leizarragaren legea urratzen duen. Eta bokal artekoak zer esanik ez: *serbizatu*, *herrazeti*, *ekaizac*, *surcaizac*, *ezizauste*, *aizitic*, *sizauste*, *baizarete*, *darizanac*, *serbizuti*, *izulzecotan* (Oihenarten 17. neurtitzekoak guziak), zeinen *z* guziak Mitxelenak *tz* aldatzen baititu: *zerbizatu*, *herratzeti* eta abar. Halaber hitzaren bukaerakoak: XIV. neurtitzean Oihenartek *hoz*, Mitxelenak *hotz*; IX.ean hark *bihoz*, honek *bihotz*.

Ez dakit ez ote naizen neure xedetik urrunegi joan, agian bai, baina egingo nuke Oihenarten neurtitzak urte hauetan marruskatu behar izan ditugun guziok puntu honetan bat gatozela; alegia, ez dela erraz Oihenarten neurtitzez mintzatzea haren grafiari buruz bi hitz esan gabe. Eta —diodan apalki eta xumeki— beste puntu honetan ere bai, apika: bi hitz horiek Oihenarten grafiaren gainean, behar bezain klarki bederen, esan gabe zeudela.

Neure txosten honetan Neurtitzei buruz egin diren ikerlanak nahitaez aipatu behar nituen, gainera, aldez haien zordun naizela aitortzeko eta aldez nik gaur dakarkizuedan edonolako lantxo hau orain arte inork bururatu ez duela eta norbaitek egitea merezi zuela arrazoitzeko.

Egingabe utzi zuten eta niri egingarria iruditu zaidan azterketa hau da: Oihenarten neurtitzetan barrena agertzen diren adizki jokatu guziak bildu eta sailkatu. Helburu eta asmo honekin: Oihenarten hizkeraren —ez nahitaez zubereraren, ez baitzen zubereraz, zuberera soilaz bederen, baliatu— aditz sistema osoki ezagutzeko, Etxeparerena eta Leizarragarena iadanik ezagutzen ditugun bezala.

Lan hori Lafonek ez burutu izanak harritzen gaitu bereziki, ezen hor goian aipaturiko bere *Système* delakoaren osagarri bipila izan zitekeen, ez

baitugu uste liburu horretan agortua dagoenik euskara zaharreko adiztegi osoa, XVI. mendekoa bakarrik izan zuelarik ikergai; aitzitik zuzen onez uste dugu badela Oihenartengan han aurkitzen ez den adizki berririk. Horrez gain *Notes pour une édition critique...* izeneko artikulu baliosoa ere egina baitzeukan, lehen esan bezala, gutxi falta zuen guk gaur dakarguna berak lehenago, eta segurki hobeki, egiteko.

Falta zuen gutxi hori osatzera dator gure lan hau eta uste dugu egiteak merezi zuela. Adizki guziak bildurik eta kidea kideari alderaturik ikustean agertzen dira, izan ere, barreiaturik daudenean ikusten ez diren zenbait gauza. Hala nola, zein diren adizki beraren aldaki soilak, zenbaitetan beren artean aski desberdin diruditenak begiratu batera. Exenplu bat bakarrik aipatuko dut, familia bereko —erro bereko eta bakarreko— diruditen adizki batzuk aztertzuz eta bide batez Lafonek inon argitzen ez duen adizki ilunsko bat azalduz.

Hona elkarren antzeko diruditen adizki batzuen sorta:

1. *Eta hunqui-iin erran orde,*  
*Ari SIZAUSAT belsuri (XXVII)*
2. *Nois ere bazen baiZIZAUZAT*  
*Bidean iragaitean (I)*
3. *Eta iarzen SAUST erranes*  
*Estesaquesul' eman, es (XXIII)*
4. Min' iragaiten  
SAUTan artean  
Nehorat ioaiten  
SAUSKIDanean (XVI)
5. *Seren nic suri*  
*Emanic bahi*  
*Bihoz', izuri*  
*BaiZAUSKIT nahi (XVI)*
6. Bihozac SAUTAN-cal ehaiten,  
Hur' ene soberaren doizen  
Iarriric, ari sen... (XVII)
7. *Harc SAUSTAN neureac eguiten (XVII)*
8. *Morroina beh' aurkinzetan*  
*BaiZAUTEN, aldarte betan (XXVI)*
9. *Eci bihoza su beti hala*  
*Icussis guibel SAUSTADAla (V)*
10. *Vzi sizadan manus baiZAUSAT*  
*Exequiterago enis ausat (V)*

Horko adizki guziok *zau-* dute erroa; horretan ez da dudarik. Baina zer da *zau-*? Aditz erro bakarra al da ala aditz batek baino gehiagok izan dezakete erro hori? Azter ditzagun banaka adizki horiek:

1-5: Jakina da zubereraz adizki laguntzaile iragangaitzaren “nor-nori” formek ez dutela euskara batuan bezala aditz-oina “zai-”, baizik “zau-”. Hori horrela delarik eta bertsoaren zentzuari behaturik, garbi dago 1.ko SIZAUSAT (gaurko grafian *zitzauzat*) euskara batuko *zatzaizkit* baizik ez dela, osagai berdinez osatuak biak: alegia, *za(t)-*en ordez *zi(t)-*, “nor” morfematzat; *-zai-*gabe *-zau-*, aditz-errotzat, eta *-ki-* exkax duen *z* soila pluralgiletzat, baina silabatua eta *za* bilakatua. Horrenbestez aise onartuko da 2.ko *baiZIZAUZAT* ere (gaurko grafian *-zitzauzat*) gauza bera dela, nahiz honek azken silaban *-zat* dioen eta hark berriz *-sat* agiriko arrazoirik gabe.

Ikusi batera lanak ditu sinesteak 3.ko SAUST ere (gaurko grafian *zauzt*) euskara batuko *zatzaizkit*-en eta hainbestez aurreko 1.eko eta 2.eko *sizausat*-en kidea dela, baina hala da halere, nahiz pixka bat murriztua egon. Aurrekaldean *zi(t)-* galdu du, izan ere, eta erroaren ondoren *-z-* pluralgilea soilik ageri da, ez lehen bezala silabatua. Zer esanik ez, *saust* hori eta *saut* (ikus hurrengo 4.) bi direla Oihenartengan, azken hau “hura neri” delarik pluralgile gabea baita.

Ondoko beste bi pasarteetako adizkia ere, 4.ekoa eta 5.ekoa, SAUSQUIT-alegia, aurrekoen kidea dela sinesten errazago da, azken *saust* berbera baita, lehengo pluralgile *z-ri ki* ere erantsi eta beste gabe. Beraz 1.- 5. zenbakietan euskara batuko “*zatzaizkit*”-en hiru aldaera ditugu: gaurko grafiara aldaturik *zitzauzat*, *zauzt* eta *zauzkit* izango liratekeenak. Diogun bidenabar ez direla nahasi behar *sausquit* honekin Vgarren neurtitzeko *sasquio*, ez eta XVgarreneko *sasquit*, biok euskara batuko “zakizkio” eta “zakizkit”-en kide baitira, eta ez indikatiboak.

6-7: Beste erro batekoak dirudite, ostera, testu ingurua aztertuz gero, 6.ko eta 7.ko SAUTAN-ek eta SAUSTAN-ek. Batetik garbi dago adizki laguntzaileak direla, “ehaiten” eta “eguiten” aldamenean baitituzte, eta bestetik ergatiboaren presentziak —*bihozac* eta *harc*— salatzen du adizki horien iragankortasuna. Beraz ez da dudarik “nor-nori-nork” formak direla, lehenaldian noski; euskara batuko “zidan” eta “zizkidan”, alegia. Horien ondoan badaki halere Oihenartek forma osoagoa, *seraustan*, esaten (ikus Neurtitz berean, XVIIgarrenean, 80. lerroan).

8-10: Hona azkenik beste hirukote hau, bere baitan “-ri beha egon”, “-ri gibel egon” eta “-ri manuz egon” esapideak dituela dirudiena. Bestela esan, EGON-en *zago-* formatik sorturiko *zau-* dela dirudiena. Lehenbizikoan —8.an, alegia— “morroina haiei beha zagoten (atzo)” (ikus *dagotenari* XVI. neurtitzean), hau da, “beha zegokien”, irakurri beharko litzateke, antza denez. Bigarrenean, hots 9.an, “zu... ikusiz gibel zauztadala” horrek esan behar “zu neri gibel zauztadala” (<*zagoztadala*) izatea eskatzen duela. Hala izatekotan, euskara batuko *zagozkit*-en pareko izango litzateke horko “zauztat-” hori,

agian “neri” morfemari dohakion marka bikoiztua edo duelarik: alegia, *-ta-t*; izan ere, *satost* (IV) ikusirik badirudi *sagost* > *saost* > *SAUST* (gaurko grafian *zauzt*) aski litzatekeela, beste *-ta-* ere txertatu gabe. Azkenean, 10.ean, bertsoaren zentzuak eskatzen du “zu neri manuz zauzat”, alegia, “zagozkit” bezala parafraseatzea. Horrenbestez aurrekoaren aldaera izango litzateke, datiboaren morfema bikoiztu gabe *-t* soilarekin, eta pluralgile *z* silabatuarekin. Beraz *zauztat* = *zauzat*.

Azterketa honek erakusten digu erro bereko ziruditen adizki guzti horiek itxuraz hala zirela, itxuraz bakarrik ordea, zeren itxura bereko erro baten atzean zinezko hiru erro baitzeuden izkutatuak.

Hauxe bakarrik esan nahi dut amaitzeko. Norbait harrituko da agian Neurtitzetako Adiztegia bakarrik osatu dudalako eta ez horietakoaz gainera Atsotitzetako. Arrazoia ximplea da, eta kasu honetan ez dut uste ximpletasunak arrazoia ahultzen duenik. Mundu guziak daki, Urkixok eta Mitxelenak aho batez irakatsi zutenetik, zenbait atsotitzek beste hizkuntzetatik Oihenartek euskaratuak diruditelara, bai, baina gehienak noraezean askoz lehenagokoak direla eta ez haren inkudean landuak, eta haietako adizkiak ez direla nahitaez Oihenarten hizkerakoak. Hezeak eta iharrak elkarrekin ez nahastearren utzi ditut bildu gabe Atsotitzetakoak.

## II. LAGUNTZAILE IRAGANGAITZA

Oharra: Parentesi arteko zenbakiak zenbatgarren Neurtitza den adierazten du

II.1. NAIS(4, 4, 4, 4, 8, 8, 12, 16, 16, 17, 17, 17)			
naisela(6)	naisen(24)	naisenean(17)	
bainais(2,5,15,17,17,17)		banais(4,4)	
espanais(25)	enais(15)	enaisela(4)	
nis(1,1,3,8)	nisan(2,2,2,7,8,25)	nisano(15)	
nisanean(7)	nisala(7,23,27)		
enis(5)	bainis(1)		
espainis(17)	banis(5,8)	espanis(3,3)	
AIS(26)	aisela(11)	baihais(28)	
is(9)	isala(26)	isan(11)	isana(26)
baihis(3)	esisala(18)		
DA(1, 1, 2, 4, 5, 5, 6, 6, 6, 8, 10, 11, 12, 12, 12, 13, 13, 14, 15, 15, 17, 20, 22, 22, 22, 22, 24, 26)			
bada(12,24,27)	deia(20)	badeia(14)	
den(7,10,10,13,13,15,15,17,24)			
dena(1,5,11,13,13)	denari(5)	denes(2,15)	
denean(5)	dela(10,11,12,13,13)	delacos(15)	
baita(8,12,13,13,20,20,22,22,22,24,28)			
esta(5,6,6,7,10,10,12,12,13,13,17,17,26)			

	ezta(8)	esten(2)	estena(11)	estenic(17)
	esteia(8)	estela(11,17)	espada(12,15,15,15)	
	GARA(26)	baguira(5)		
	SARA(20,20)	saren(4,20)	sarenean(27)	
	sarela(2,6)	basara(2)	ezara(15)	
	sira(5,23)	siren(2)	sirenzat(5)	eziren(15)
	<i>baiZARETE</i> (17)			
	DIRA(8,12,22)	baitira(13,17)	direla(26)	
	NISAUSU <sup>nean</sup> (7)			
	sait(14,17,17)	saita(8)		
	sautan(16)	ezautala(1)		
	sauca(12)			
	saust(23)	sizausat(27)	baizizauzat(1)	
	baizausquit(16)	saukidanean(16) <sup>1</sup>		
	sizauste(17)	ezizauste(17)		
	espaizauskote(17) <sup>2</sup>			
	sauzat(1)	sauquin(1)	sausco(26)	
II.2.	SEN(17,17,20,26,26,26)			
	sen(17)	senaren(28,29)		
	cenagati(20)	baizen(21)		
	sela(26)	selacos(26)		
	ezinaten(17)			
	siren(20,26)	sirenean(26)		
	baizautan(17) <sup>3</sup>			
	banins(2,2,13)			
	balis(2,17)	aylis(6)	es-aylis(6)	
	lisan(17)	elisan(4,4)		
	espasina(16)			
II.3.	NISATE <sup>alacos</sup> (25,25)			
	datequiela(18)	estateien(2)		
	sirate(5,14)	sirateen(16)		
	ninzatela(14) <sup>4</sup>	lisate(13)		
	ninsatela(17) <sup>5</sup>	satela(17)		
	sauque (o) (17)			
	sauquesuna (7) <sup>6</sup>	bis(15) <sup>7</sup>		
II.4.	eNADIN(16)	nadinean(3)		
	esadila(18)			
	dadin(16)			
	gaitesen(23)			
	siteen(2)			
	aquidan(3)			



OIHENARTEN NEURTITZETAKO ADIZTEGIA

	estaquiála(19)		
	ezasquidala(8) <sup>8</sup>		
	adi(19)	akit(9)	
		bequie(21)	
		sasquit(15)	sasquio(5)
	<i>SEDIN</i> (20,20,20?,20,26,26,26,26)		basedin(20)
	sedina(13,22)		
	citen(26)	siten(20,20,26)	
		sitesen(20) <sup>9</sup>	
		litesen(20)	
	sequion(20)	cequion(26)	sequien(20)
II.5.	sasquion(20) <sup>10</sup>		
	<i>NAITE</i> (16)	naiteen(16)	naiteeno(16)
	daite(4,13,16)		
	saitesquiela(26)		
		naquidina(3)	
		daquidisula(24) <sup>11</sup>	
	<i>ENAINTE</i> (4,17)		
	ainte(9)		
	laite(10,20)	laiteenes(7)	
	ezindesque(4)	ezintesquea(26)	
		laquidita(13)	
		laquidisu(24) <sup>12</sup>	
		enankidisun(15) <sup>13</sup>	

III. LAGUNTZAILE IRAGANKORRA

III.1.	banun(9)	espanun(11)	nunala(11)
	<i>NAU</i> ena(21)	banau(13)	naien(7)
	enu(10)	enuela(8)	nuen(8,10)
	nusu(5,24)	nusula(24)	bainusu(5)
		banusu(25)	espanusu(5)
	nutenac(8)		
	nun(3,9,11,11)	esnun(3,3)	nusu(8) <sup>14</sup>
	<i>AUT</i> (3)	uguna(22)	utena(22)
	<i>DUT</i> (1,5,7,8,13,15,17,17,21)		duta(1)
	estut(1,5,13)	badut(2)	baitut(8)
	baduta(2)	dudan(2,3,3,4,6,10,13)	
	dudana(2,8,27)	estudan(10,17)	
	dudala(13,25)	estudala(4,6)	
	estudalaric(4)		
			nausua(15)

	dinat(3,9,11)	estinat(3,26)		
	disut(6,15,25,25) <sup>15</sup>			
	DUC(28,28)	estuna(11)		
	dun(9,11,26)	estun(9) <sup>16</sup>		
	DU(6,10,12,12,12,13,13,13,14,14,17,20,22,27,29)			
	estu(13,15)	estueta(12)	duen(10,13)	
	duenaren(15)	diela(2)	duela(13)	duelatic(12)
	baitu(12,13,13,15,22)		espadu(5)	
	dici(27)	disu(7)	din(11) <sup>17</sup>	
	DUGU(20,24)	espaitugu(25)	espadugu(26)	
	DUSU(5,5,15,20)	dusun(2)	badusu(5,15,23)	
	dusula(6)	estusu(6,7)	dusua(15) <sup>18</sup>	
	estusuna(20)	espadusu(23)		
	DUSUEla(17)	dusuen(17)		
	DUTE(28)	duten(12,26)	dutenac(8,22)	
	dutenean(8)	dutenec(28)	baitute(28)	
	GAITUalacos(22)	baiquitu(4)		
	baSAITUT(16)	saitu(4,15)	saituena(15)	
	saitudan(25)	saitudanean(4)		
	situt(23)	espsaitu(4)		
	SAITUSTET(17)			
	DITUT(16,17,27)	baititut(17)		
	ditu(8,12)	(di)tusula(14)		
	estitusten(26)			
	sitin(9)	sitikeguc(26) <sup>19</sup>		
III.2.	NUEN(6,17,17)	bainuen(17)	nuenean(6)	
	baizuen(20)			
	baizenduen(20)			
	suten(20)			
	NITUEN(15)	nituela(17)		
	situen(20)			
	NINDUTENetatic(15)	nindisun(15) <sup>20</sup>		
	SINTIElaco(5) <sup>21</sup>			
	baLU(13)	espalu(17)	balute(28)	luen(17)
	balitu(17)			
III.3.	DUQUETA(27) <sup>22</sup>	duquedala(17)		
	estuquet(17)			
	dukesulaco(5)			

	nuquen(9)	banuquen(9) <sup>23</sup>	
	baizituquet(2)	ezituqedala(7) <sup>24</sup>	
	duquen(9,9) <sup>25</sup>		
	<i>NUQUE</i> (13)	nuqueenas(9)	niquesi(5) <sup>26</sup>
	sinuque(5)		
	luque(6)		
	ninduquesula(2)		
	sintusqedala(17)		
	bu(20,20)	bute(28) <sup>27</sup>	
III.4.	<i>esTERAUTASU</i> (27)		
	derautasu(2)	derautasue(17)	darote(6)
	baderaucat(7)	baderauca(20)	deraucate(20)
	draucat(10)		
	derausudanean(4)		
	erautan(9)	sautan(17)	
		saustan(17)	
		seraustan(17) <sup>28</sup>	
III.5.	<i>DESAN</i> (15)	estesala(18)	dasano(24) <sup>29</sup>
	nesana(11)	nesanic(9)	
	espanesasu(16)	enesasula(14,24) <sup>30</sup>	
	saizadan(15)	sizadan(5,5)	
	saizan(15)	sizan(25)	
	<i>NENSAN</i> (13)	banensa(17)	
	nesan(14)	banesa(10)	
		albaihesa(19)	
		bailesa(10)	
	sesan(20,26,26,26)	cesana(26)	
		sesano(20)	
	ezesan(14)	baizesan(20)	
	guenzan(22)	guenzanzat(22)	
	banesasu(14) <sup>31</sup>		
	seson(26)	sesen(20) <sup>32</sup>	
	<i>DESAQUET</i> (1)	estesaguesula(23)	
	enendesaque(27)		
	diroena(10)	siniro(25)	niroienes(7)
			siroen(26)
	sirosu(1) <sup>33</sup>		
	<i>NESAN</i> (11) <sup>34</sup>		
	nesasu(5,16)	/ ezac(18,19)	
	esac(18)	/ izasu(24)	
	esasu(15,23)	gaizac(22)	

## IV. SINTETIKO IRAGANGAITZAK

*EGON*

nago(10,12,13,13,17,27)	nagoen(12)	nagoan(2)
banago(3)		
saudeen(2)	basaude(8)	
beude(10)		
nangoenean(17)		
enendauque(2)	elauque(2) (35)	
ezaoqueela(17)		
nausun(24)	nausuno(23)	
dautano(23)	dagotenari(16)	
baizausat(5)	saustadala(5)	
baizauten(26) <sup>36</sup>		
segocola(22)		
niagon(11)	niagosu(1) <sup>37</sup>	

*ERION*

sariola(22)

*ETORRI*

banatorra(5)	
datorra(15)	datorrala(26)
betor(6,6)	
sato(15,15)	
satost(4)	
ezenhoske'(1) <sup>38</sup>	

*ETXEKI*

banaxeco(5)	
badaxen(11)	daxeconeanean(20)

*ETZAN*

nazano(24)		
dazan(29)	baitaza(22)	
daunsanac(10)		
sazan(20)	sazanaren(20)	sazala(20)
saunzala(20) <sup>39</sup>		

*IAUGI*sindiaurisan(5)<sup>40</sup>*IBILI*

nabila(12)	bainabila(4)	estabila(5)
sabilza(27)		
nenbilano(17)		
sebilela(22)		

*JAITSI*

badaitso(13)<sup>41</sup>

*JARRAITU*

narrain(3)

banarraisu(25)

darraic'(24)<sup>42</sup>

*JOAN*

noa(16)

nohela(1)

banohaco(15)

doa(22)

goas(24)

soas(2)

doasala(26)

bihoa(15,20)

dohatalaric(4)

espadohate(10)

**V. SINTETIKO IRAGANKORRAK**

*EDASI*

bailedaske(15)

*EDEKI*

dedetesuna(20)<sup>43</sup>

*EDUKI*

daducasu(27)

estaducasu(5,15,25)

naduca(10,14)

naducasu(4)

naducate(24)

bainenducan(17)

baizeducan(20)

seducana(22)

naduque(10)

neduque(13,13,13)<sup>44</sup>

daduzanac(10)

eduzasu(24)

diaducan(3)<sup>45</sup>

*EGIN*

neguisu(24)<sup>46</sup>

eguisu(2,7,16)

egui(19)

/ eguisquic(22)

eguin(3)<sup>47</sup>

espegui(16)<sup>48</sup>

beguite(8)

badaguidasu(1,1,25)

baitaguidasu(1,1)

seguion(20)

seguin(26)

seguitela(20)

*(<sup>^</sup>IDI)*

daidita(13)

badaidita(2)

daidisu(16)

badaidiela(15)

saidien(26)<sup>49</sup>

**EKARRI**

espadacarsu(27)  
dacastela(26)

**EMAN**

emadan(9)  
dema(15)

emadasu(2)  
demaiala(22)<sup>50</sup>

**(\*IN—)**

badidasu(5)

espadidan(9)<sup>51</sup>

**ENTZUN**

enansuna(20)<sup>52</sup>

**ERAKARRI**

naracarsuno(23)  
deracarsque(20)

**ERAKUTSI**

deracutsunac(19)

deracustano(17)  
eracustasu(24)

eracutsu(15)  
deracusquegu(24)

**ERAMAN**

saramaza(15)

**ERATZAN**

baderaza(13)

**EROAN**

daroa(20)

daroate(20)

**ETSI**

baletsa(13)

**ERRAN**

baderragu(13)  
serrazanac(22)  
esterrasquet(10)  
nerraque(13)

derrakegu(13)

**EZAGUTU**

estasagusua(15)  
esagusu(20)

**\*IDI (ikus EGIN)**

**\*ION**

diosuna(20)  
diostala(7)  
dioite(26)

diotso(20)  
dioitela(26)

siotsan(3)	siotsona(20) <sup>53</sup>	
siostela(22)		
bihotsa(13)		
bailihotsa(15)		
<i>IGORRI</i>		
nigorra(20)		
<i>IHARDETSI</i>		
sinhardetsana(26)		
<i>IKUSI</i>		
nacussun(4)		
dacussat(6,7,17)	baitacussu(4)	
icusquisu(7) <sup>54</sup>		
*IN— (ikus EMAN)		
<i>IRAUN</i>		
diraukedala(9)	dirauke(17)	
<i>IRITZI</i>		
darizat(15)	badariza(20)	
darizana(9)	darizanac(17)	
estarizozunari(6)		
leristan(13)		
<i>IRUDI</i>		
badiduri(10)	sirudien(13)	
<i>JAKIN</i>		
dakit(10)	daquit(24)	
estakit(7,10)	badaquit(17)	
espaitakit(16)		
estaskit(10)	dakidan(7)	
daquidan(3)	daquisun(27)	
sakien(17)	espaizaquien(26)	saquitenac(20)
bacenequi(25)		
eziakisu(7)		
<i>JAURETSI</i>		
iauretsac(18)		
<i>SINETSI</i>		
sinhetsu(14)		
sinhetsac(18)		
<i>UTZI</i>		
ustasu(2)	uztec(22)	
dusquisu(21) <sup>55</sup>		
ezinsusquet(2) <sup>56</sup>		

## VI. OHARRAK

Hona argibide batzuk testu ingurutik landan biluzi ikusirik ilunsko diratekeen zenbait adizkiri buruz:

- (1) Euskara batuko “zatzaizkit”-en kide diren bost adizkion berri ikus “sarrera”ren azken lerroetan.
- (2) Euskara batuan “-zatzaizkiote”, alegia “zuek hari”, baina Oihenartengan *zat-* (hobeki esan, *zit-*) galdu duelarik.
- (3) Lehenaldia, *hura neri*; euskara batuan “zitzaidan”.
- (4) Euskara batuko *nintzateke* zor zaio.
- (5) Euskara batuko *nintzatekeen* beharko luke, *-ela ez* balu.
- (6) Biok “dateke hari” eta “dateke zuri” dira, baina *zai-* gabe *zau-* aditzoina dutelarik. Euskara batuko *zaioke* eta *zaizuke*.
- (7) Gero (27) ikusiko ditugun *bu/bute* bezalako agintekerak, baina honako *biz* hau iragangaitza.
- (8) Ondoko agintezko *sasquit* eta *sasquio* bezala, sujetoa ZU dutenak.
- (9) Hirurak —*citen, siten, sitesen*— elkarren aldakiak dira, ondoko *sequion* eta *cequion* bezala.
- (10) *Iar* erro soila aurrean daramanez gero, *sasquion* hau gure *zekizkion* subjuntiboari parekatu behar nahitaez. Hogeigarren neurtitzean agertzen diren zenbait «aoristo», Lafonek «temps de récit» deitzen dituenetariko bat da.
- (11) Euskara batuko *nakinake* eta *dakizuke* ditugu bi horietan.
- (12) Hauetan berriz *lekidake* eta *lekizuke*.
- (13) Hau euskara batuan (*ez*) *nenkizukeen* litzateke.
- (14) Hiru hauek alokutiboak dira.
- (15) Hauek ere bai.
- (16) Bi hauek ere alokutiboak dira.
- (17) Hiru hauek ere bai.
- (18) Galderazko *-a* atzizkia du honek.
- (19) Hauek ere alokutiboak dira: *ditu-*rena eta *ditukegu-*rena.
- (20) *Nintzen*-en zutanoa; gure “(joan) *ninduan/nindunan*” Oihenartek *nindian/nindinan* esango zituzkeen.
- (21) Gure *zintue-*
- (22) Galderazko *-a* itsatsia du honek.
- (23) Bi *nuquen* hauek *nor-nork* formak dira («hik ni edoki» dio batak, «hik ni hil» bestea).
- (24) *Zu*, noski.
- (25) *Duquen* hauek *date*-ren hitano femeninoak dirudite.
- (26) *Nikek* eta *niken* bezala, alokutiboa.
- (27) Indikatiboko errotikako agintekerak, *biz/bira* iragangaitzekoen kideak: ikus (7).
- (28) 17garren neurtitzeko hiru adizkiok *hark neri* formak dira, bi azkenak pluralgilea dutenak. Beraz *saustan* eta *seraustan* aldakiak dira. Ikus “sarrera”ren azken lerroak.



- (29) Beste biak bezalaxe hau ere euskara batuko *deza*-  
 (30) Lau hauek euskara batuan *naza*- lukete.  
 (31) *Nik zuri zerbait*, alegia.  
 (32) Hauek euskara batuko *ziezaion* eta *ziezaien* dira.  
 (33) Adizki hau ere alokutiboa da: alegia, *diro*, *adizu!* Bestalde \*-*iro* erroa duten bostok, gure *dezaket*, *nezake*, eta abarren kideak dira euskara zaharrean.  
 (34) *Hik ni*, alegia, agintekeraz.  
 (35) *Egon*-en adizki askok bokal arteko -g- galtzen dute maiz. Biok (*ez*) *nendagoke* eta (*ez*) *lagoke* izango lirateke osorik idatziz gero.  
 (36) Hiru adizkion berri ikus sarreraren azken lerroetan.  
 (37) Beste bi hauek alokutiboak dira.  
 (38) Galde perpausa denez gero, *ezenhoskea* behar luke. Elisioa markaturik eman nahi izan zigun poetak, ordea, eta -a ezabatuaren ordeztu ipinirik; inprimategiko okerreztu apostroforik ez dauka testuak, baina bistan da zor zaiola, ostera silaba baten exkax da bertsoa.  
 (39) Liburuaren azkeneko *Fautes de l'impression* delakoan eman zigun testuko *sunzala* (164. bertsoa) honela zuzendua.  
 (40) Bokal arteko -g- hor -r- bilakatu da, Lafonek dioen bezala. Berdin ezazu *zin-doa-z-en*-ekin.  
 (41) "Hura hari jaitsi", alegia.  
 (42) Nahiz «suri huts, et' es berzeri / Darraic' ene gogo» dioen testuak, Lafonek «zuri darraica» irakurtzen du pasarte hau, eta ez «zuri darraizu» edo.  
 (43) Alegia, "edekitzen (kentzen) diezuna". «Kenduko», Lafonen ustez, geroko balioa omen baitu.  
 (44) "Nik hura edukiko nuke", alegia. Guk sintetikoki esan nahi izanez gero, (*nedukan*>) *nedukake* edo esango genukeena, nahiz behin *naduke* dioen. Harrigarriena ordea XIII,102. bertsoa da, non, Lafonek dioen bezala, (*nik*) *hura* morfemak dagozkion adizki honek ez *hura*, baizik *nibaur* (lehen pertsona) baitu osagarri zuzena.  
 (45) Alokutiboa da: *daduka*, *adizan!* Guk gehienok (*zeukak*) / *zeukan* esango genukeena.  
 (46) Agintekera sintetikoa da: "egin nazazu", alegia.  
 (47) *Eguin* hau 2. pertsonako agintekera sintetiko femeninoa da; alegia, "egin ezan"; "egik"-en kidea.  
 (48) San Inazioaren martxako «Na(h)iz betor» hura dela eta, Mitxelenak harridura erakutsi ohi zuen *nahiz*-ek ondoan agintekera daramalako. Ez zuen erreparatu nonbait Oihenarten bertso honetan, ez eta Lafonek egiten dion ohar luzean: «Construction doublement remarquable et très rare: *nahis* <quoique> est ici construit avec l'impératif, et la négation *es* est préfixée à une forme d'impératif». Etxeparek ez Leizarragak ez omen dute halakorik, Oihenartek horrez gain besterik ere bai, bizkaieraz *zebegi* eta antzekoak ere hortxe omen ditugu. «Je ne connais pas d'autre exemple où il soit construit avec l'impératif», dio gero. Aipatu nuen behinola, haatik, Ziburuko Etxeberriren «Nahiz biz...» hura (*Manuel*, 1406. bertsoa).

(49) Jakina den bezala. \**-idi-* erroko adizkiak ageri dira euskara zaharrean *egin* aditzaren *-ke-* luketen adizki sintetikoan ordainetan. Esan nahi baita, gero *dagiket*-en orde *daidit*, *negike*-ren orde *naidi*, *negi keen*-en orde *naidien*, etab. agertzen dira.

(50) Biak dira hauek, *dema* nahiz *demaiala*, *nor-nori-nork* formak: lehena “hark hari”, bigarrena “hark hiri”.

(51) *Eman* aditzaren baliokidetzat jo ohi da \**i(n)* erro zaharra, *i(n)dazu ur* bezalakoetan ageri dena. Erro horretakoa da hau.

(52) «Metri causa» erantsi omen zaio azken *-a*: hala dio Lafonek.

(53) Honi ere azken *-a* arrazoi beragatik erantsi omen zaio (ikus aurreko oharra).

(54) Lafonek okertzat dauka «suffixe pluralisateur» omen den *-qui* hori, osagarri zuzena singularra omen duelako. Ez ote da *-que*-ren ordezkia, *icusquesu* alegia? Hobeki dator ondoko adizki *-saukesuna-*, berak bezala *-que* lukeenarenkin. Ikus ondoko 55. oharra.

(55) Adizki honen «le suffixe pluralisateur *-qui* ne s’explique pas» dio berriz Lafonek. Latinez «dimittis» da, egia, indikatiboko orainaldi arrunta, baina «ahal» balioa eman ohi diote exegetek pasarte honi: «Ahora puedes dejar a tu siervo en paz» Ikus W. Bauer-en Lexikon ere: «Mayest thou let die». Ez ote da, beraz, aurreko oharrean bezala, *-que, dusquesu*, “utz dezakezu”, alegia?

(56) Lafonen ustez adizki honetan oker txiki bat itzuri zitzaien inprimategiko langileei. *Utzi*-ren forma sintetiko honek, ez kenduz gero, *zinzuzket* ez baina *zin-t-uz-ke-t* behar omen luke (gaurko grafian idatzirik); edozein gisaz, perifrastikoki esan balu zubereraz eta behenafarreraz erabili beharko zukeen (*ez utz*) *zintzazket* laguntzailearen *-za-* erroaren eragina izan zitekeela z erabiltzea. Badaiteke hala izatea. Zergatik ez beste hau? Buruan izatea, alegia, *zituquet* (ikus II) eta *zintuket* (ikus IXVII, *sintusquedal’* objeto “zuek” duena), eta *-t-u-* (pluralgile gehi erro) orde *-z-uz-* (pluralgile gehi erro) ipintzea? Ez jakin.

## VII

Ikerlariren bati noizbait ongi etor dakiokelakoan Oihenartek adizki hau edo hura erabili zuen ala ez jakitea, abezeko zerrendan ezarriak ematen ditut hemen guziak, aurkitzea errazago izan dakion. Oihenarten grafian utzi ditut, baina sailkatzeko orduan letra bakoitzari Oihenartengan duen balio fonetiko ematen saiatu naiz, eta horrenbestez *ezara* (= *etzara*), esate baterako, gorago kokatu dut *esnun* (= *ez nun*) baino. Adizkien ondoko zenbakiek zein neurritzetan agertzen diren adierazten dute eta gehienez bi seinالاتu ditut.

adi (\**edin*) 19  
aylis (izan) 6  
ainte (\**edin*) 9  
ais (izan) 26

aisela (izan) 11  
aquidan (\**edin*) 3  
aquit (\**edin*) 9  
albaihesa (\**ezan*) 19

- aut (\*edun) 3  
 bada (izan) 12,14...  
 badaguidasu (eguin) 1,25  
 badaidiela (\*idi) 15  
 badaidita (\*idi) 2  
 badaitso (jaitsi) 13  
 badaquit (jakin) 17  
 badariza (iritzi) 20  
 badaxen (etxeki) 11  
 badeia (izan) 14  
 baderaza (eratzan) 13  
 baderauca (\*edun) 20  
 baderaucat (\*edun) 7  
 baderragu (erran) 13  
 badidasu (\*in) 5  
 badiduri (irudi) 10  
 badut (\*edun) 2  
 baduta (\*edun) 2  
 badusu (\*edun) 5,15..  
 baguira (izan) 5  
 baihais (izan) 28  
 baihis (izan) 3  
 baiquitu (\*edun) 4  
 bailedaske (edasi) 15  
 bailesa (\*ezan) 10  
 bailihotsa (\*ion) 15  
 bainabila (ibili) 4  
 bainais (izan) 2,5...  
 bainenducan (eduki) 17  
 bainis (izan) 1  
 bainuen (\*edun) 17  
 bainusu (\*edun) 5  
 baita (izan) 8,12...  
 baitaguidasu (egin) 1  
 baitacussu (ikus) 4  
 baitaza (etzan) 22  
 baitira (izan) 13,17  
 baititut (\*edun) 17  
 baitu (\*edun) 12,13...  
 baitut (\*edun) 8  
 baitute (\*edun) 28  
 baizarete (izan) 17  
 baizauten (egon) 26  
 baizausat (egon) 5  
 baizausquit (izan) 16  
 baizautan (izan) 17  
 baizeducan (eduki) 20  
 baizen (izan) 21  
 baizenduen (\*edun) 20  
 baizesan (\*ezan) 20  
 baizituquet (\*edun) 2  
 baizizauzat (izan) 1  
 baizuen (\*edun) 20  
 baletsa (etsi) 13  
 balitu (\*edun) 17  
 balis (izan) 2,17  
 balu (\*edun) 13  
 balute (\*edun) 28  
 banago (egon) 3  
 banais (izan) 4  
 banarraisu (jarraitu) 25  
 banau (\*edun) 13  
 banatorra (etorri) 5  
 banaxeco (etxeki) 5  
 banensa (\*ezan) 17  
 banesa (\*ezan) 10  
 banesasu (\*ezan) 14  
 banins (izan) 2,13  
 banis (izan) 5,8  
 banohaco (joan) 15  
 banuquen (\*edun) 9  
 banun (\*edun) 9  
 banusu (\*edun) 25  
 basaitut (\*edun) 16  
 basara (izan) 2  
 basaude (egon) 8  
 bacenequi (jakin) 25  
 beguite (eguin) 8  
 bequie (\*edin) 21  
 betor (etorri) 6  
 beude (egon) 10  
 bihoa (joan) 15,20  
 bihotsa (\*ion) 13  
 bis (izan) 15  
 bu (\*edun), 20  
 bute (\*edun) 28

- da (izan) 1,2...  
 dadin (\*edin) 16  
 daducasu (eduki) 27  
 daduzanac (eduki) 30  
 dagotenari (egon) 16  
 daidita (\*idi) 13  
 daidisu (\*idi) 16  
 daite (\*edin) 4,13  
 dacastela (ekarri) 26  
 dakidan (jakin) 7  
 daquidan (jakin) 3  
 daquidisula (\*edin) 24  
 daquit (jakin) 24  
 dakit (jakin) 10  
 daquisun (jakin) 27  
 dacussat (ikusi) 6,7...  
 darizana (iritzi) 9  
 darizanac (iritzi) 19  
 darizat (iritzi) 15  
 daroa (eroan) 20  
 daroate (eroan) 20  
 darote (\*edun) 6  
 darraic' (jarraitu) 24  
 dasano (\*ezan) 24  
 datequiela (izan) 18  
 datorra (etorri) 15  
 datorrala (etorri) 26  
 daxeconean (etxeki) 20  
 daunsanac (etzan) 10  
 dautano (egon) 23  
 dazan (etzan) 29  
 dedetesuna (edeki) 30  
 deia (izan) 20  
 dela (izan) 10,11...  
 delacos (izan) 15  
 dema (eman) 15  
 demaiala (eman) 22  
 den (izan) 7,10...  
 dena (izan) 1,5...  
 denari (izan) 5  
 denean (izan) 5  
 denes (izan) 2,15  
 deracarsque (erakarri) 20  
 deracusquegu (erakutsi) 24  
 deracustano (erakutsi) 17  
 deracutsunac (erakutsi) 19  
 deraucate (\*edun) 20  
 derautasu (\*edun) 2  
 derautasue (\*edun) 17  
 derausudanen (\*edun) 4  
 derrakegu (erran) 13  
 desan (\*ezan) 15  
 desaquet (\*ezan) 1  
 diaducan (eduki) 3  
 diela (\*edun) 2  
 din (\*edun) 11  
 dinat (\*edun) 3,9...  
 dioite (\*ion) 26  
 dioitela (\*ion) 26  
 diotso (\*ion) 20  
 diostala (\*ion) 7  
 diosuna (\*ion) 20  
 dira (izan) 8,12...  
 dirauke (iraun) 17  
 diraukedala (iraun) 9  
 direla (izan) 26  
 diroena (\*iro) 10  
 ditu (\*edun) 8,12  
 ditut (\*edun) 16,17...  
 (di)tusula (\*edun) 14  
 dici (\*edun) 27  
 disu (\*edun) 7  
 disut (\*edun) 6,15...  
 doa (joan) 22  
 doasala (joan) 26  
 dohataric (joan) 4  
 du (\*edun) 6,10...  
 dudala (\*edun) 13,25  
 dudan (\*edun) 2,3...  
 dudana (\*edun) 2,8...  
 duela (\*edun) 13  
 duelaric (\*edun) 12  
 duen (\*edun) 10,13  
 duenaren (\*edun) 15  
 dugu (\*edun) 20,24  
 duc (\*edun) 28

duquedala (*edun) 17	esagusu (ezagutu) 20
duquen (*edun) 9	ezac (*ezan) 18,19
duqueta (*edun) 27	ezaoqueela (egon) 17
dukesulacoz (*edun) 5	ezara (izan) 15
dun (*edun) 9,11...	ezautala (izan) 1
dusquisu (utzi) 21	ezasquidala (*edin) 8
dut (*edun) 1,5...	ezenhoske' (etorri) 1
duta (*edun) 1	ezesan (*ezan) 14
dute (*edun) 28	eziakisu (jakin) 7
duten (*edun) 12,26	ezinaten (izan) 17
dutenac (*edun) 8,22	ezindesque (*edin) 4
dutenean (*edun) 8	ezintesquea (*edin) 26
dutenec (*edun) 28	ezinsusquet (utzi) 2
dusu (*edun) 5,15...	eziren (izan) 15
dusua (*edun) 15	ezituquedala (*edun) 7
dusuela (*edun) 17	ezizauste (izan) 17
dusuen (*edun) 17	esadila (*edin) 18
dusula (*edun) 6	es-aylis (izan) 6
dusun (*edun) 2	esac (*ezan) 18
eduzasu (eduki) 24	esasu (*ezan) 15,23
eguiç (egin) 19	esisala (izan) 18
eguìn (egin) 3 (inperat. femen.)	esnun (*edun) 3
eguisquic (egin) 22	espada (izan) 12,15
eguisu (egin) 2,7	espadacarsu (ekarri) 27
elauque (egon) 2	espadidan (*in) 9
elisan (izan) 4	espadohate (joan) 10
emadan (eman) 9	espadu (*edun) 5
emadasu (eman) 2	espadugu (*edun) 26
enadin (*edin) 16	espadusu (*edun) 23
enainte (*edin) 4,17	espainis (izan) 17
enais (izan) 15	espaitakit (jakin) 16
enaisela (izan) 4	espaitugu (*edun) 25
enankidisun (*edin) 15	espaizaquien (jakin) 26
enansuna (entzun) 20	espaizauskote (izan) 17
enendauque (egon) 2	espalu (*edun) 17
enendesaque (*ezan) 27	espanais (izan) 25
enesasula (*ezan) 14,24	espanesasu (*ezan) 16
enis (izan) 5	espanis (izan) 3
enu (*edun) 10	espanun (*edun) 11
enuela (*edun) 8	espanusu (*edun) 5
eracustasu (erakutsi) 24	espasina (izan) 16
eracutsu (erakutsi) 15	espasitu (*edun) 4
erautan (*edun) 9	espegui (egin) 16

- esta (izan) 5,6...  
 ezta (izan) 8  
 estabila (ibili) 5  
 estaducasu (eduki) 5,15...  
 estaquiala (\*edin) 19  
 estakit (jakin) 7,10  
 estarizozunari (iritzi) 6  
 estateien (izan) 2  
 estasagusua (ezagutu) 15  
 estaskit (jakin) 10  
 esteia (izan) 8  
 estela (izan) 11,17  
 esten (izan) 2  
 estena (izan) 11  
 estenic (izan) 17  
 esterautasu (\*edun) 27  
 esterrasquet (erran) 10  
 estesala (\*ezan) 18  
 estasquesula (\*ezan) 23  
 estinat (\*edun) 3,26  
 estitusten (\*edun) 26  
 estu (\*edun) 13,15  
 estudala (\*edun) 4,6  
 estudalaric (\*edun) 4  
 estudan (\*edun) 10,17  
 estuela (\*edun) 12  
 estun (\*edun) 9  
 estuna (\*edun) 11  
 estuquet (\*edun) 17  
 estut (\*edun) 1,5...  
 estusu (\*edun) 6,7  
 estusuna (\*edun) 20  
 gaitesen (\*edin) 23  
 gaitualacos (\*edun) 22  
 gaizac (\*ezan) 22  
 gara (izan) 26  
 guenzan (\*ezan) 22  
 guenzanzat (\*ezan) 22  
 goas (joan) 24  
 iauretsac (jauretsi) 18  
 icusquisu (ikusi) 7  
 izasu (\*ezan) 24  
 is (izan) 9  
 isala (izan) 26  
 isan (izan) 11  
 isana (izan) 26  
 laite (\*edin) 10,20  
 laiteenes (\*edin) 7  
 laquidita (\*edin) 13  
 laquidisu (\*edin) 24  
 leristan (iritzi) 13  
 litesen (\*edin) 20  
 lisan (izan) 17  
 lisate (izan) 13  
 luen (\*edun) 17  
 luque (\*edun) 6  
 nabila (ibili) 12  
 nadinean (\*edin) 3  
 naduca (eduki) 10,14  
 naducate (eduki) 24  
 naducasu (eduki) 4  
 naduque (eduki) 10  
 nago (egon) 10,12...  
 nagoan (egon) 2  
 nagoen (egon) 12  
 nangoenean (egon) 17  
 naien (\*edun) 7  
 naite (\*edin) 16  
 naiteen (\*edin) 16  
 naiteeno (\*edin) 16  
 nais (izan) 4,8...  
 naisela (izan) 6  
 naisen (izan) 24  
 naisenean (izan) 17  
 naquidina (\*edin) 3  
 nacussun (ikusi) 4  
 naracarsuno (erakarri) 23  
 narrain (jarraitu) 3  
 nauena (\*edun) 21  
 nausua (\*edun) 15  
 nausun (egon) 24  
 nausuno (egon) 23  
 nazano (etzan) 24  
 neduque (eduki) 13  
 neguisu (egin) 24  
 nenbilano (ibili) 17

- nensan (\*ezan) 13  
 nerraque (erran) 13  
 nesan (\*ezan) 14 (subj.)  
 nesan (\*ezan) 11 (inper.)  
 nesana (\*ezan) 11  
 nesanic (\*ezan) 9  
 nesasu (\*ezan) 5,16  
 niagon (egon) 11  
 niagosu (egon) 1  
 nigorra (igorri) 20  
 niquesi (\*edun) 5  
 nindisun (\*edun) 15  
 ninduquesula (\*edun) 2  
 nindutenetaric (\*edun) 15  
 ninzatela (izan) 14  
 ninsatela (izan) 17  
 niroienez (\*iro) 7  
 nituen (\*edun) 15  
 nituela (\*edun) 17  
 nis (izan) 1,3...  
 nisala (izan) 7,23...  
 nisan (izan) 2,8  
 nisanean (izan) 7  
 nisano (izan) 15  
 nisatealacos (izan) 25  
 nisausunean (izan) 7  
 noa (joan) 16  
 nohela (joan) 1  
 nuen (\*edun) 8,10 (hark ni)  
 nuen (\*edun) 6,17 (nik hura)  
 nuenean (\*edun) 6  
 nuque (\*edun) 13  
 nuquen (\*edun) 9  
 nuqueenas (\*edun) 9  
 nun (\*edun) 3,9...  
 nunala (\*edun) 11  
 nutenac (\*edun) 8  
 nusu (\*edun) 5,24 (zuk ni)  
 nusu (\*edun) 8 (alokut.)  
 nusula (\*edun) 24  
 sinhetsac (sinetsi) 18  
 sinhetsu (sinetsi) 14  
 uguna (\*edun) 22  
 utena (\*edun) 22  
 ustasu (utzi) 2  
 uztec (utzi) 22  
 sabilza (ibili) 27  
 saidien (\*idi) 26  
 sait (izan) 14,17  
 saita (izan) 8  
 saitesquiela (\*edin) 26  
 saitu (\*edun) 4,15  
 saitudan (\*edun) 25  
 saitudanean (\*edun) 4  
 saituena (\*edun) 15  
 saitustet (\*edun) 17  
 saizadan (\*ezan) 15  
 saizan (\*ezan) 15  
 sakién (jakin) 17  
 saquitenac (jakin) 20  
 sara (izan) 20  
 saramaza (eraman) 15  
 sarela (izan) 2,6  
 saren (izan) 4,20  
 sarenean (izan) 27  
 sariola (erion) 22  
 satela (\*edin) 17  
 sato (etorri) 15  
 satost (etorri) 4  
 sazala (etzan) 20  
 sazan (etzan) 20  
 sazanaren (etzan) 20  
 saudeen (egon) 2  
 sauca (izan) 12  
 sauque(o) (\*edin) 17  
 sauquesuna (\*edin) 7  
 saunzala (etzan) 20  
 sautan (izan) 16 (hura neri)  
 sautan (\*edun) 17 (hark neri hu-  
 ra atzo)  
 sauzat (izan) 1  
 sauskidanean (izan) 16  
 sausquin (izan) 11  
 sausco (izan) 26  
 saust (izan) 23  
 saustadala (egon) 5

saustan (*edun) 17 (hark neri haiek atzo)	sinhardetsana (ihardetsi) 26
sasquit (*edin) 15	sintielacoz (*edun) 5
sasquio (*edin) 5	sintusquedala (*edun) 17
sasquion (*edin) 20	sinuque (*edun) 5
sebilela (ibili) 22	siotsan (*ion) 3
sedin (*edin) 20,26	siotsona (*ion) 20
sedina (*edin) 13,22	siostela (*ion) 22
seducana (eduki) 22	sira (izan) 5,23
seguien (egin) 26	sirate (izan) 5,14
seguion (egin) 20	sirateen (izan) 16
seguitelera (egin) 20	siren (izan) 2 (zu)
segocola (egon) 22	siren (izan) 20,26 (haiek)
sequion (*edin) 20	sirenean (izan) 26
cequion (*edin) 26	sirezat (izan) 5
sequien (*edin) 20	siroen (*iro) 26
sela (izan) 26	sirosu (*iro) 1
selacos (izan) 26	sirudien (irudi) 13
sen (izan) 17,20...	siteen (*edin) 2
sena (izan) 17	citen (*edin) 26
cenagati (izan) 20	siten (*edin) 20,26
senaren (izan) 28,29	sitesen (*edin) 20
seraustan (*edun) 17	sitin (*edun) 9
sesan (*ezan) 20,26	sitikeguc (*edun) 26
cesana (*ezan) 26	situen (*edun) 20
sesano (*ezan) 20	situt (*edun) 23
sesen (*ezan) 20	sizadan (*ezan) 5
seson (*ezan) 26	sizan (*ezan) 25
siniro (*iro) 25	sizausat (izan) 27
sindiaurisan (iaugi) 5	sizauste (izan) 17
	soas (joan) 2